

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDAL KIROL PATRONATUA

Iragarkia

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 23.2 artikulua dionaren arabera eta irabaziak lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeen diru laguntzak arautzen dituen oinarri berezien arabera, diru-laguntza horiek emateko 2019ko deialdia egitea komenigarria ikusi da.

Aurrekoa ikusirik eta Zumaia udaleko diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzako 12 artikulua dionaren arabera.

EBAZTEN DUT

1. Irabaziak lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeei diru-laguntzak emateko 2019 urteko deialdia egitea.

2. Aipatutakoa deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko web orrian argitaratzea.

Zumaia, 2019ko martxoaren 6a.—Gotzon Enbil Unanue, lehendakari ordezkaria. (1585)

ERANSKINA

Irabaziak lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeei diru-laguntzeko 2019 urteko deialdia.

1. Xedea:

Deialdi honen xedea da, Zumaia irabazirik lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeei diru-laguntzak ematea.

2. Eskabideak aurkezteko epea:

Iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik 20 egun baliodun arte.

3. Eskabideak eta aurkezteko beharrezko agiriak:

Diru-laguntza eskaerak Lubaki kiroldegiko bulegoetan edo erregistro nagusian aurkez daitezke bulego orduetan, 1. eranskina aurkeztuz, Lehendakariaren izenean. Inprimakiari ondorengo agiriak erantsiko zaizkio:

- Diru-laguntzaren eskaera normalizatua. (1. eranskina).
- Elkarte eskatzailearen ordezkari edo arduradun den pertsonaren NANaren fotokopia.
- Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duena giuraren fotokopia.
- Eusko Jaurlaritzako elkarten eta entitateen erregistro troko inskripzio-zurtagiria.
- Elkarteari dagokion federazioan alta ematearen fitxa edo zurtagiria.
- Egingo diren kirol jardueren aurreikuspena.
- Elkarte edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreen aurrekontua.

PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE ZUMAIA

Anuncio

De acuerdo con lo establecido en el artículo 23.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones de 17 de noviembre y de acuerdo con la Ordenanza por la que se rigen las bases específicas para la concesión de ayudas económicas para los clubes y entidades deportivas, sin ánimo de lucro se ha considerado conveniente efectuar la convocatoria para el año 2019 de dicha subvención.

Visto lo que antecede y de acuerdo con el artículo 12 de la Ordenanza Reguladora del Otorgamiento de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia.

RESUELVO

1. Efectuar convocatoria para la concesión de ayudas económicas para los clubes y entidades deportivas, sin ánimo de lucro para el año 2019.

2. Publicar la mencionada convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento.

Zumaia, a 6 de marzo de 2019.—El vicepresidente, Gotzon Enbil Unanue. (1585)

ANEXO

Convocatoria del año 2019 para solicitar ayudas económicas por los clubes y entidades deportivas, sin ánimo de lucro.

1. Objeto:

Es objeto de la presente convocatoria, la regulación del acceso y concesión de las ayudas económicas para los clubes y entidades deportivas sin ánimo de lucro de Zumaia.

2. Plazo de presentación de solicitudes:

Desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta 20 días hábiles después de su publicación.

3. Solicitudes y documentación a presentar:

Las solicitudes de subvención podrán presentarse, en horario de oficina, en las oficinas del Polideportivo Lubaki, o registro general del Ayuntamiento de Zumaia, mediante la presentación del anexo 1 que se adjunta a la presente dirigida al Presidente. Al impreso se acompañarán los siguientes documentos:

- Solicitud de subvención normalizada. (Anexo 1).
- Fotocopia del DNI de la persona representante o responsable de la entidad solicitante.
- Fotocopia del documento del Código de Identificación Fiscal.
- Certificado de inscripción en el registro de Asociaciones y Entidades deportivas del Gobierno Vasco.
- Ficha o certificado de la entidad expedida por la federación correspondiente.
- Previsión de la actividad deportiva.
- Presupuesto anual de gastos e ingresos de la entidad o asociación.

h) Udalari dagokion entitatean informazioa eskatzeko baimena eman ezean, zerga-betebeharrak eta gizarte-segurtasun-tzarekikoak egunean betetzen direla akreditatzen duen agiria. (1. eranskina).

i) Instituzio eta erakundeetan egin diren diru-laguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren diru-laguntzena. (2. eranskina).

j) Zinpeko aitortpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, amaierako seigarren xedapenak arautzen duen ildotik. (1. eranskina).

k) Euskararen tratamendua jardueraren hedapenean. (3. eranskina).

l) Foru Aldundiak eskola mailako kirolari zuzendutako araudia bete. (1. eranskina).

Udaleko elkarteetan eroldan dauden taldeek b), c) eta d) puntuetan eskatutakoa ez dute aurkeztu beharrik izango.

4. Aurrekontuko diru-hornidura:

Aipatutako diru-laguntzarako 90.000 € banatuko dira Kirol diru-laguntzan federatuei 1.0000.481.341.00.01 (17) partidatik, oinarri espezifikoak diotena betetzen duten eskaintzen artean.

5. Diru-laguntzaren ordainketa:

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri-administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

Egitaraua edo jarduera garatzeko orduan, benetako kostua aurkeztutakoa baino gutxiagokoa baldin bada, onartutako diru-laguntza benetako gastuaren neurrian gutxituko da. Urteko diru-laguntza kontzeptuan jasotako kopurua, behin betiko diru-laguntza erreala baino gehiagokoa izango balitz, diferentzia itzuli beharko litzake.

6. Diru-laguntzaren justifikazioa:

Gastuak justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira kitapenerako:

– Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria xehakaturia. Bertan adierazi beharko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak. Honekin batera 4. eranskina beteta aurkeztu beharko da.

– Aurkeztutako egiaztagirien (fakturen) zerrenda zenbaki-tua.

– Justifikazio-memoria ekonomikoa, jatorrizko egiaztagiriez osatua.

– Diruz lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehakaturia, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.

– Dokumentazio grafikoa (kartelak-egitarauak) edo ikus-entzunezkoa (halakorik bada).

– Federakuntzatik jasotako agiriak, behar bezala ziurtatuta egon behar dute.

7. Ordainketa:

Diru-laguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 40 arterainoko ordaindu ahal izango da (aurrerapena).

h) En caso de no dar autorización al Ayuntamiento para recabar información de los entes pertinentes, deberá entregar documento acreditativo de estar al corriente de las obligaciones, tributarias y de seguridad social. (Anexo 1).

i) Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante instituciones, organismos, o en su caso, de las que estuvieran otorgadas. (Anexo 2).

j) Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayuda públicas, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. (Anexo 1).

k) Tratamiento del euskera en la difusión de la actividad. (Anexo 3).

l) Cumplir la normativa foral para el deporte escolar. (Anexo 1).

Todos aquellos clubes que estén en el censo del Ayuntamiento, no tendrán que presentar los documentos que se mencionan en los puntos b), c) y d).

4. Dotación presupuestaria:

Para la subvención mencionada se destinarán 90.000 € de la partida 1.0000.481.341.00.01 (17) Subvenciones para clubes federados que se distribuirán entre las solicitudes que cumplan con lo dispuesto en las bases específicas.

5. Cuantía de la subvención:

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones Públicas, o de otros Entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

Si a la hora de desarrollar el programa-actividad, el coste real es inferior al presentado, la subvención concedida se verá reducida de acuerdo a la parte proporcional del gasto real. Si la cantidad percibida en concepto de subvención anual fuera superior a la subvención real definitiva, se deberá realizar el reintegro de la diferencia.

6. Justificación de la subvención:

Para la justificación del gasto se deberá de presentar la siguiente documentación para la liquidación:

– Memoria detallada del programa o actividad subvencionada con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, junto con el anexo 4.

– Una memoria económica justificativa con justificantes originales o, en su caso, fotocopias compulsadas, del gasto realizado (facturas).

– Relación numerada de los justificantes presentados.

– Relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

– Documentación gráfica (carteles-programas) o audiovisual, en el caso de que hubiera.

– Los documentos que procedan de la federación, deberán estar debidamente certificados.

7. Abono:

Una vez comunicada la concesión de la subvención, se podrá abonar hasta el 40 % de la cantidad concedida (adelanto).

2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar diren ekin-
tzen memoria eta frogagiriak egiaztatu ondoren, gainerako
ehunekoa ordainduko da (kitapena).

El restante porcentaje, se abonará una vez que presenten la
memoria de las actividades y comprobados los justificantes que
se presentarán antes del 31 de octubre del 2019 (liquidación).